

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Hasierako onespena ematea 21/03 kreditu gehigarriaren espedienteari

Nik, José Ramón Molinuevo Lañak, Amurrioko Udaleko alkateak,
jakinarazten dut:

Amurrioko udalbatzak, 2021eko azaroaren 11ko osoko bilkuran, hasierako onespena eman zion 2021eko aurrekontuko 21/03 kreditu gehigarriari (2021/S830/39 espedientea). Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauaren 34. artikuluan xedatutakoa betez, agiri hori hamabost egun baliodunez jarriko da jendaurrean iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera, kontuhartzaitetzan, interesdunek aztertu eta, foru arau horren 17. artikuluan xedatutako eran, egoki deritzeten erreklamazioak aurkez diezazkioten udalbatzari.

Adierazitako epean erreklamaziorik aurkezten ez bada, espedientea behin betiko onetsizat joko da, halaxe xedatzen baitu aipatutako foru arauak 15.1 artikuluan.

Erreklamazioak aurkezten badira, Udalbatzak hilabete izango du erreklamazio horiek ebazteko, jendaurreko erakustaldia bukatu eta hurrengo egunetik aurrera.

Aurrekontua behin betiko onesteko egintzan erreklamazioak ebazten ez badira, ez direla onetsi esan nahiko du.

Amurrio, 2021eko azaroaren 11

Alkatea

JOSÉ RAMÓN MOLINUEVO LAÑA